Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko uztailaren 17a, ostirala — 134 — Viernes, a 17 de julio de 2026

BESTE BATZUK — 7 — OTROS

## AZPEITIA BERRITZEN SA

*Iragarkia*

Azpeitia Berritzen SA sozietateko Administrazio Kontseiluak, 2026ko uztailaren 8an egindako bilkuran, Azpeitiko «4.1 Santutxo» eta «1.2 Done Jakue 3» lurzatietan eraikiko diren babes ofizialeko 10 etxebizitza, dagozkien garaje eta trastelekuekin batera, jabetza-araubidean esleitzeko oinarriak onartzea erabaki zuen.

Azpeitia, 2026ko uztailaren 8a.—Nagore Alkorta Elorza, Azpeitia Berritzen S.A.ren lehendakaria. (4680)

*Azpeitiko «4.1 Santutxo» eta «1.2 Done Jakue 3» lursailetan eraikiko diren babes ofizialeko 10 etxebizitza, garaje eta trastelekuen zozketa eta esleipenerako oinarriak. Espediente erreferentzia: 2026PLAN0028.*

1. *Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea, Azpeitiko udalerrian «4.1 Santutxo» eta «1.2 Done Jakue 3» lursailetan jabetza-erregimenean eraikiko diren babes ofizialeko 10 etxebizitza, garaje eta trasteleku esleitzeko, zerrendak eratzea, zozketa egitea eta esleipenak arautuko dituzten baldintzak ezartzea da.

Etxebizitzak eta horiei atxikitako garaje eta trastelekuek, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen kalifikazio iraunkorra izango dute.

2. *Jabetza-erregimena eta prezioa.*

Etxebizitzak, garajeak eta trastelekuak jabetza-erregimenean eskualdatuko dira.

Babes ofizialeko etxebizitzen eta horiei atxikitako garaje eta trastelekuen salmenta prezioa, araubide orokorreko BOEei behin-behineko kalifikazioa emateko unean aplikagarri zaien prezioa izango da gehienez, aplikatzekoa den araudi autonomikoaren arabera.

Ondorioztatzen diren prezioei, une oro indarrean dagoen BEZa aplikatuko zaie.

3. *Babes ofizialeko etxebizitzen onuradun izateko baldintzak.*

Deialdi honen xede diren babes ofizialeko etxebizitzen esleipendun izateko, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan, edo hori ordezten duen araudian, ezarritako baldintzak bete beharko dira, hau da:

a) Adinez nagusia edo legez emantzipatua izatea.

b) Etxebizitza beharra izatea, arauz ezarritako baldintzetan. 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa (2008ko martxoaren 28ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua) eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua (2012ko urriaren 31ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua).

c) Azpeitian erroldatuta egotea, baldintza hauetakoren bat betez:

## AZPEITIA BERRITZEN S.A.

*Anuncio*

El Consejo de Administración de Azpeitia Berritzen S.A. en sesión celebrada el día 8 de julio de 2026 acordó aprobar las bases para la adjudicación de 10 viviendas, garajes y trasteros de protección oficial en régimen de propiedad, a construir en las parcelas «4.1 Santutxo» y «1.2 Done Jakue 3» de Azpeitia.

Azpeitia, a 8 de julio de 2026.—La presidenta de Azpeitia Berritzen S.A., Nagore Alkorta Elorza. (4680)

*Bases para el sorteo y adjudicación de 10 viviendas, garajes y trasteros de protección oficial a construir en las parcelas «4.1 Santutxo» y «1.2 Done Jakue 3» de la localidad de Azpeitia. Expediente de referencia: 2026PLAN0028.*

1. *Objeto de la convocatoria.*

La presente convocatoria tiene por objeto establecer las condiciones para la elaboración de listas, sorteo y adjudicación de 10 viviendas, garajes y trasteros de protección oficial en régimen de propiedad, a construir en las parcelas «4.1 Santutxo» y «1.2 Done Jakue 3» de la localidad de Azpeitia.

Las viviendas, garajes y trasteros vinculados, tendrán la calificación permanente de viviendas de protección oficial de régimen general.

2. *Régimen de propiedad y precio.*

Las viviendas, garajes y trasteros serán transmitidos en régimen de propiedad.

El precio de venta de las viviendas, garajes y trasteros vinculados de protección oficial, será como máximo el precio aplicable a las VPO de régimen general en el momento de su calificación provisional, según la normativa autonómica de aplicación.

A los precios resultantes les será aplicado el IVA correspondiente en vigor, en cada momento.

3. *Condiciones para ser beneficiario/a de una vivienda de protección oficial.*

Para poder ser adjudicatario/a de las viviendas de protección oficial objeto de esta convocatoria, deberán cumplirse los requisitos establecidos en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de las viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, o normativa que lo sustituya, es decir:

a) Ser mayor de edad o emancipado/a legalmente.

b) Tener necesidad de vivienda, en los términos establecidos normativamente. Decreto 39/2008 de 4 de marzo (publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* de fecha 28 de marzo de 2008) y en la Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, (publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* de fecha 31 octubre de 2012).

c) Estar empadronado en Azpeitia cumpliendo alguna de las siguientes condiciones:

EK\CV GAO-I-2026-04680

— Azpeitiko udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez 6 urtez, 2026ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko azken 15 urteetan.

— Azpeitiko udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez eta etenik gabe, 2026ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko 2 urteetan.

Titular bat baino gehiago dituzten eskaeren kasuan, nahikoa izango da horietakoren batek errolda baldintza betetzea.

d) Arauek ezarritako gehieneko eta gutxieneko diru-sarrera haztatuak betetzea.

Zehazki, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak erosteko gehieneko diru-sarrera haztatuak ezingo dira 46.463,29 eurotik gorakoak izan, eta gutxieneko diru-sarrerak ezingo dira 12.000,00 €tik beherakoak izan.

Mugikortasun urri iraunkorra duten desgaituen kasuan, nahikoa izango da 3.000,00 €ko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

Diru-sarrerak zenbatzeko, 2025eko ekitaldian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aitortutakoak hartuko dira kontutan.

*4. Etxebiden alta - Eskaera orria.*

Eskatzaileek behar bezala aurkeztuta eduki beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Zerbitzu Publikoa –Etxebide– Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskaera, Babes Ofizialeko Etxebizitza-eskatzaile bezala, erosketa erregimenean, Azpeitian.

Erregistroan inskribatutzat joko da, eskatzaileak dokumentazio guztia bete eta Etxebidek izen-ematearen alta ebatzi ondoren, kasu honetan 2026ko azaroaren 1erako.

*5. Deialdia - Etxebizitzak esleitzeko zozketan parte hartzeko izena ematea.*

Etxebizitzak esleitzeko zozketan izena emateko epea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren irekiko da.

Izen ematea baliozkoa izateko, nahitaezkoa izango da Etxebideren espediente-zenbakiaren bidez identifikatzea.

Ezingo dute zozketan parte hartu, eta ez dira onartuak izango, aipatutako deialdian ezarritako epean eskaera hau aurkeztu ez duten pertsonak.

*6. Etxebizitzak esleitzeko zozketan parte hartzeko eskaeren aurkezpen lekua.*

Zozketan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da interesa dutenek izen emate inprimakia aurkeztea Azpeitiko Udaleko Erregistro Orokorrean (Plaza Nagusia 5), Azpeitia Berritzen SAren bulegoetan (Enparan 34 behea) edo telematikoki.

— Aurrez aurreko kanala: Azpeitiko Udaleko Erregistro Orokorra, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30etara, eta ostegunetan 19:00ak arte (udako ordutegia egunero 07:30etatik 14:30etara), bai eta Azpeitia Berritzen SAren bulegoetan, astelehena, asteazkena eta ostirala 08:00etatik 14:30etara, asteartea 08:00etatik 13:30etara eta 14:30etatik 17:30etara eta osteguna 08:00etatik 13:30etara (udako ordutegia egunero 08:00etatik 14:30etara), edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan. Eskatzaileak eskabidea posta-bulego batean aurkeztea erabakiko balu, gutunazal irekian aurkeztuko du, posta-zerbitzuko langileek data eta zigilua jar diezaioten eskabideari.

— Kanal elektronikoa: http://www.azpeitia.eus.

Informaziorako telefonoa: 943.157.183.

Harremanetarako posta elektronikoa: azpeitiaberritzen@azpeitia.eus.

— Estar empadronado en el municipio de Azpeitia, como mínimo 6 años en los últimos 15 años inmediatamente anteriores al 1 de enero de 2026.

— Estar empadronado en el municipio de Azpeitia, como mínimo e ininterrumpidamente durante los 2 años anteriores al 1 de enero de 2026.

En el caso de solicitudes en que conste más de un titular, será suficiente con que alguno de ellos cumpla el requisito de empadronamiento.

d) Cumplir con los ingresos máximos y mínimos ponderados determinados normativamente.

En concreto los ingresos máximos ponderados para la compra de viviendas de protección oficial de régimen general no podrán ser superiores a 46.463,29 € y los ingresos mínimos no podrán ser inferiores a 12.000,00 €.

En el caso de discapacitados con movilidad reducida de carácter permanente, bastará con acreditar ingresos mínimos de 3.000,00 €.

Para el cómputo de los ingresos se tendrán en cuenta los declarados en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del ejercicio 2025.

*4. Alta en Etxebide - Impreso de solicitud.*

Las personas solicitantes tendrán que haber presentado en forma la solicitud de inscripción en el Registro de Solicitantes de Vivienda del Servicio Público de Vivienda del País Vasco –Etxebide–, como demandantes de Vivienda de Protección Oficial en régimen de compra en Azpeitia.

Se considera como inscrito en el Registro, una vez el solicitante cumplimente toda la documentación y Etxebide resuelva el alta de inscripción, en este caso para el 1 de noviembre de 2026.

*5. Convocatoria - Inscripción para participar en el sorteo de adjudicación de las viviendas.*

El plazo para la inscripción en el sorteo de adjudicación de las viviendas, se abrirá tras la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Para la validez de esta inscripción, resultará preceptiva la identificación mediante el correspondiente número de expediente de Etxebide.

No podrán participar en el sorteo ni serán admitidas las personas que no hayan presentado esta solicitud en el plazo a establecer en la citada convocatoria.

*6. Lugar de presentación de solicitudes para participar en el sorteo de adjudicación de las viviendas.*

Para participar en el sorteo, es imprescindible que las personas interesadas presenten el impreso de inscripción en el sorteo a través del Registro General del Ayuntamiento de Azpeitia (Plaza Nagusia 5), en las oficinas de Azpeitia Berritzen S.A. (Enparan 34 bajo), o telemáticamente.

— Canal presencial: Registro General del Ayuntamiento de Azpeitia, de lunes a viernes, de 07:30 a 14:30 horas, y los jueves hasta las 19:00 horas (en horario de verano todos los días de 07:30 a 14:30), o bien en las oficinas de Azpeitia Berritzen S.A. los lunes, miércoles, viernes de 08:00 a 14:30, los martes de 08:00 a 13:30 y de 14:30 a 17:30 y los jueves de 08:00 a 13:30 (en horario de verano todos días de 08:00 a 14:30), o cualesquiera de los lugares previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común. En el caso de que la persona solicitante opte por presentar su solicitud en una oficina de correos lo hará en sobre abierto para que la instancia sea fechada y sellada por el personal de Correos.

— Canal electrónico: http://www.azpeitia.eus.

Teléfono de información: 943.157.183.

Correo electrónico de contacto: azpeitiaberritzen@azpeitia.eus.

EK\CV GAO-I-2026-04680

7. *Aurkeztu beharreko agiriak.*

a) Eskaera orria behar bezala beteta.

Datuen bitartekaritza plataformaren bidez eskatu ahal izango diren zerbitzuak edo Udalaren esku dauden datuak:

— Udala: errolda.

— Justizia Ministerioa: egoera zibilaren kontsulta.

Azpeitia Berritzen SAk egokitzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio eskatzaile bakoitzari, eskatutako baldintzak justifikatzeko helburuarekin.

Pertsona eskatzailea ez dago behartuta aurrez Azpeitiko Udalari eman dizkion dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluak zehazten duena jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan soilik, organo eskudunak eskatzaileari dokumentazioa aurkeztea eska dakioke, edo ezin badu, beste bitarteko batzuen bitartez egiazta dezala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizuna. Aurkeztu beharreko dokumentazioa Azpeitiko Udala ez den beste Administrazio bateko artxiboetan egongo balitz, eta Administrazio honek informazio hori bidaltzeari uko egingo balio konfidentzialtasun arrazoiengagatik, datuen babesagatik edo legezko beste edozein arrazoirengatik, eskatzailea arduratuko da dokumentazio hori lortu eta Azpeitia Berritzen SAra ekartzeaz.

Halaber, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentazioa ez aurkeztera, 39/2015 Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.2 artikuluaren arabera. Azpeitiko Udalak zuzenean eskatuko dizkio sektore publikoko edozein erakunderi Oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak. Hala ere, eskatzaileak aurka egiteko eskubidea du, eta aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamenduaren 21. artikulua).

8. *Behin-behineko zerrenda eta erreklamazioak.*

Eskaeretan jasotako zirkunstantziak egiazkoak direla egiaztatu ondoren, Azpeitia Berritzen SAk baldintzak betetzen dituztenen behin-behineko zerrendak osatuko ditu.

Zerrenda horiek Azpeitiko Udaleko iragarki-taulan eta web orrian (www.azpeitia.eus) ikusgai jarriko dira hamar egun baliodunekoepean, aurrez Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian iragarki bat argitaratu ondoren.

Hamar eguneko epe horretan, baztertuak izan diren eskatzaileek erreklamazioa jarri ahal izango dute, baztertze hori justifikaziorik gabea dela uste badute. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udaleko Erregistro Orokorrean, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30etara, eta ostegunetan 19:00ak arte (udako ordutegia egunero 07:30etatik 14:30etara), bai eta Azpeitia Berritzen SAren bulegoetan, astelehena, asteazkena eta ostirala 08:00etatik 14:30etara, astearte 08:00etatik 13:30etara eta 14:30etatik 17:30etara eta osteguna 08:00etatik 13:30etara (udako ordutegia egunero 08:00etatik 14:30etara), edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan. Eskatzaileak eskabidea posta-bulego batean aurkeztea erabakiko badu, gutunazal irekian aurkeztuko du posta-zerbitzuko langileek, data eta zigilua jar diezaioten eskabideari, eta erreklamazioak jasotzen dituen arrazoiak babesteko beharrezkotzat jotzen diren frogagiri guztiekin batera.

Parte-hartzaileen behin-behineko zerrendak bi izango dira guztira:

7. *Documentación a aportar.*

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentada.

Los servicios que se podrán solicitar a través de la plataforma de intermediación de datos o datos en poder del Ayuntamiento:

— Ayuntamiento: padrón.

— Ministerio de Justicia: consulta del estado civil.

Azpeitia Berritzen S.A. podrá requerir a cada solicitante aquella documentación complementaria que considere oportuna, a fin de justificar los requisitos exigidos.

La persona solicitante no estará obligada a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente al Ayuntamiento de Azpeitia. A estos efectos, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. Solo en los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir al solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento. En el caso de que, la documentación a aportar obrara en los archivos de otra Administración distinta al Ayuntamiento de Azpeitia, y esta rehusara remitir dicha información por motivos de confidencialidad, protección de datos o cualquier otra causa legal, deberá ser la persona solicitante la encargada de recabar y aportar dicha documentación a Azpeitia Berritzen S.A.

Asimismo, los interesados tienen derecho a no aportar la documentación que ya se encuentre en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración según el artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del procedimiento administrativo común. El Ayuntamiento de Azpeitia recabará directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para comprobar el cumplimiento de las condiciones requeridas en las Bases. No obstante, el solicitante tiene derecho a oposición y en caso de oponerse, deberá justificar las razones de su oposición (art. 21 del Reglamento UE 2016/679 de Protección de Datos).

8. *Lista provisional y reclamaciones.*

Practicadas las comprobaciones oportunas sobre la veracidad de las circunstancias recogidas en las solicitudes, Azpeitia Berritzen S.A. procederá a elaborar las listas provisionales de aquellos/as que cumplen los requisitos.

Dichas listas se expondrán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Azpeitia y en su página web (www.azpeitia.eus) durante diez días hábiles, previa publicación de un anuncio en el diario de mayor tirada en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En el mismo plazo de diez días las personas solicitantes excluídas podrán interponer una reclamación, en caso de que juzguen que tal exclusión es injustificada. Dicha reclamación deberá presentarse por escrito en el Registro General del Ayuntamiento de Azpeitia, de lunes a viernes, de 07:30 a 14:30 horas, y los jueves hasta las 19:00 horas (en horario de verano todos los días de 07:30 a 14:30), o bien en las oficinas de Azpeitia Berritzen S.A. los lunes, miércoles, viernes de 08:00 a 14:30, los martes de 08:00 a 13:30 y de 14:30 a 17:30 y los jueves de 08:00 a 13:30 (en horario de verano todos días de 08:00 a 14:30), o cualesquiera de los lugares previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común. En el caso de que la persona solicitante opte por presentar su solicitud en una oficina de correos lo hará en sobre abierto para que la instancia sea fechada y sellada por el personal de Correos, acompañada de cuantos documentos probatorios se entiendan necesarios para apoyar las razones que se expongan.

El número total de listados provisionales de participantes será de dos:

EK\CV GAO-I-2026-04680

— Mugikortasun murriztuko kupoa: mugikortasun murriztuko pertsonentzat gordetako etxebizitzak eskuratzeko aukera dutenak (etxebizitza 1).

— Kupo orokorra: mugikortasun murriztuko pertsonentzat egokitu gabeko etxebizitzak eskuratzeko aukera dutenak (9 etxebizitza).

Bi kupoetan, parte-hartzaileen zerrendek zehaztuko dute zerrendako kideak ondorengo hiru kategorietako zeinetan dauden:

a) Pertsona bakar batek osatutako bizikidetza-unitateak: zenbaki bat.

b) Bi pertsonak osatutako bizikidetza-unitateak: bi zenbaki.

c) Hiru pertsona edo gehiagok osatutako bizikidetza-unitateak edo guraso bakarreko familiak: hiru zenbaki.

Onartuen behin-behineko zerrendek honako datu hauek jasoko dituzte:

— Etxebideko espediente zenbakia.

— Lehen titular eskatzailearen izen-abizenak.

— Bizikidetza unitatea.

— Zozketarako zenbaki kopurua.

— Onartua.

Baztertuen behin-behineko zerrendek honako datu hauek jasoko dituzte:

— Etxebideko espediente zenbakia.

— Lehen titular eskatzailearen NAN.

— Baztertua.

— Bazterketaren arrazoia.

*9. Behin betiko zerrendak eta etxebizitzen zerrenda.*

Erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak argitaratuko dira Azpeitiko Udalaren iragarki-taulan eta web orrian.

Behin betiko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Azpeitiko Udaleko Alkatetzari. Errekurtso hori ebatzi ondoren, ebazpena Donostiako Lehen Auzialdiko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan aurkaratu ahal izango da.

Onartuen behin betiko zerrendek honako datu hauek jasoko dituzte:

— Etxebideko espediente zenbakia.

— Lehen titular eskatzailearen izen-abizenak.

— Zozketarako zenbaki kopurua.

— Azpeitia Berritzen SAk partaide bakoitzari zozketarako modu aleatorioan esleitutako zenbakia edo zenbakiak.

Baztertuen behin betiko zerrendek honako datu hauek jasoko dituzte:

— Etxebideko espediente zenbakia.

— Lehen titular eskatzailearen NAN.

— Baztertua.

— Bazterketaren arrazoia.

Parte-hartzaileak behin betiko zerrendan agertzeak ez du esan nahi eskatutako baldintzak betetzen direnik, baldintza horiek etxebizitzak behin betiko izaeraz esleitu aurretik egiaztatuko direlarik. Berariaz xedatzen da inskripzio-eskaeraren ondorioz zozketan zenbaki bat baino gehiago esleitzen zaionak, eta azkenik, esleitutako zenbaki gehigarria edo gehigarriak jasotzeko eskubiderik ez zuela egiaztatzen bada, zozketan esleitutako lehenengo zenbakiarekin (horretarako eskubidea izanez gero) edo

— Cupo movilidad reducida: para quienes opten a las viviendas reservadas a personas con movilidad reducida (1 vivienda) .

— Cupo general: para quienes opten a viviendas no adaptadas a personas con movilidad reducida (9 viviendas).

En ambos cupos, los listados de participantes determinarán en cuál de las tres categorías siguientes se encuentran los integrantes del listado:

a) Unidad convivencial formada por una persona: un número.

b) Unidad convivencial formada por dos personas: dos números.

c) Unidad convivencial formada por tres o más personas, o familias monoparentales: tres números.

Las listas provisionales de los admitidos, contendrán los siguientes datos:

— El número de expediente de Etxebide.

— Nombre y apellidos de la primera persona titular solicitante.

— Unidad convivencial.

— Números para el sorteo.

— Admitido.

Las listas provisionales de los excluidos, contendrán los siguientes datos:

— El número de expediente de Etxebide.

— DNI de la primera persona titular solicitante.

— No admitido.

— Motivo de la exclusión.

*9. Listas definitivas y listas de las viviendas.*

Tras la resolución de las reclamaciones, se publicarán las listas definitivas de las personas admitidas y las excluidas en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia.

Se podrá interponer recurso de alzada contra la resolución definitiva ante la Alcaldía del Ayuntamiento de Azpeitia, y una vez resuelto el mismo, este podrá ser recurrido ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de Donostia.

Las listas definitivas de los admitidos contendrán los siguientes datos:

— El número de expediente de Etxebide.

— Nombre y apellidos de la primera persona titular solicitante.

— Números para el sorteo.

— El número o números que Azpeitia Berritzen S.A. haya asignado a cada participante aleatoriamente.

Las listas definitivas de los excluidos, contendrán los siguientes datos:

— El número de expediente de Etxebide.

— DNI de la primera persona titular solicitante.

— No admitido.

— Motivo de la exclusión.

El que los/as participantes aparezcan en la lista definitiva no significa que cumplan las condiciones requeridas, las cuales se comprobarán con anterioridad a la adjudicación definitiva de las viviendas. Específicamente se dispone que quien a consecuencia de la solicitud de inscripción se le asigne más de un número en el sorteo, y finalmente se acredita que no tenía derecho al número o números adicionales que se le hubieren asignado, se entenderá que ha participado en el sorteo únicamente

lehenengo biekin bakarrik parte hartu duela ulertuko da, eta bidegabe esleitu zaizkion zenbakiak zozketan baliogabe parte hartu dutela ulertuko da.

Parte-hartzaileen behin betiko zerrendarekin batera, zozketa honen xede diren etxebizitzen zerrenda argitaratuko da.

Mugikortasun murriztuko kupoan eskatzailerik ez balego (bai udalerrian, bai autonomia-erkidegoan), esleitu ez diren etxebizitzak halakotzat gordeko dira tabikazio-fasera arte. Une horretan, mugikortasun murriztuko eskatzailerik ez badago, kupo orokorreko eskatzaileei esleituko zaizkie.

*10. Esleitzeko modua: zozketa publikoa.*

Parte-hartzaileen behin betiko zerrendak argitaratzearekin batera, zozketa zein egunetan, ze ordutan eta non egingo den adieraziko da.

Zozketa horretarako izendatzen den notarioaren eta Azpeitiko Udaleko idazkariaren aurrean egingo da. Sarrera librea izango da zozketa bertatik-bertara ikusi nahi duen edonorentzat, edo bestela, streaming bidez (online) jarraitu ahal izango da Azpeitiko Udalaren web orriaren bitartez.

Zozketa bateratua egingo da etxebizitza guztientzat, baina kupoak bereizita zozketatuko dira.

Lehenengo, mugikortasun murriztua duten pertsonen kupoa zozketatuko da eta ondoren, kupo orokorra.

Kupo bakoitzeko zozketan, seme-alabak dituen edo ez dituen bikote bat, guraso bakarreko familia bat edo horiei parekatzen zaien bizikidetza-unitateren bat esleipendun suertatuko balitz, zozketarako esleitu zaizkien gainerako zenbakiak zozketatik kanpo geratuko dira, kasuaren arabera ez daitezen bi edo hiru aldiz esleipendun suertatu.

*11. Esleipendunen behin-behineko zerrendak eta itxaron zerrendak.*

Zozketa amaituta, esleipendunen behin-behineko zerrendak eta itxaron zerrendak osatuko dira.

Esleipendunen behin-behineko zerrendak eta itxaron zerrendak Azpeitiko Udalaren iragarki-taulan eta web orrian argitaratuko dira.

Zerrendetako edozeinetan agertzen diren pertsonek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte zerrenda horien aurka, hiru egun balioduneko epean, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Zozketan ezarritako hurrenkera jarraituz, itxaron zerrendak osatuko dira (zozketan esleitu suertatu den azken zenbakitik zenbatzen hasita) zozketan parte hartu duten arren esleipendun suertatu ez diren pertsona edo bizikidetza-unitate guztiekin, esleipendunik gabe geratu diren etxebizitzak esleitzeko.

Itxaron zerrendak gutxienez sei (6) hilabeteko baliozkotasuna izango du zozketa egiten den egunetik zenbatzen hasita, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 64. artikuluan ezarritakoaren arabera. Epe hori igarota, edo aipatutako sei (6) hilabeteko epea igaro baino lehen itxaron zerrenda agortuta, Azpeitia Berritzen SAk zuzenean esleitu ahal izango ditu hutsik gelditzen diren etxebizitzak, banan-banan, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako baldintzak betetzen dituen edozein pertsonari edo bizikidetza-unitateri, aipatutako 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 39. artikuluan jasotakoaren arabera.

Hala ere, itxaron zerrendak etxebizitza guztiak esleitu arte egongo dira indarrean.

Behin-behineko esleipena pertsonalki jakinaraziko zaie esleituei, eta hala dagokion kasuan, 10 egun balioduneko epea emango zaie aurretik egiaztatu ez dituzten eta nahitaez bete beharrekoak diren baldintzei buruzko dokumentazioa aurkez dezaten. Aipatutako errekerimendua betetzen ez duten pertsona guz-

con el primer número de los asignados (si tuviere derecho al mismo) o con los dos primeros, entendiéndose que el que se le hubiera asignado indebidamente no ha participado válidamente en el sorteo.

Junto con la lista definitiva de participantes se publicará la lista de viviendas objeto de este sorteo.

Las viviendas no adjudicadas del cupo de movilidad reducida por falta de solicitantes (tanto a nivel municipal como autonómico) se reservarán como tal hasta la fase de tabicación. En este momento, a falta de demandantes de movilidad reducida se adjudicarán a solicitantes del cupo general.

*10. Forma de adjudicación: sorteo público.*

A la vez que se publiquen los listados de participantes definitivos, se indicará día, hora y lugar de la celebración del sorteo.

El sorteo se celebrará ante el/la notario/a que al efecto se designe y la secretaria del Ayuntamiento de Azpeitia. El acceso será libre para cualquier persona que quiera presenciarlo o en su caso, podrá seguirse en streaming (online) a través de la página web del Ayuntamiento de Azpeitia.

Se efectuará un sorteo conjunto para todas las viviendas, si bien se sortearán los cupos por separado.

Inicialmente se sorteará el cupo de personas con movilidad reducida, para a continuación pasar al cupo general.

